

30+10 Mintegia: hizkuntza-kudeaketa enpresan

- Urriaren 21ean, Elgoibarko IMH-Makina Erremintaren Institutuan garatuko da jardunaldi hau 5, urtez. Urtean zehar enpresetan hizkuntza-kudeaketak emandako aurrerapausoen berri izateko aukera da. Aurten 13 ponentzia izango dira. Lurdes Auzmendik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordeak, egingo du sarrera-ekitaldia; eta, bestetik, GFAk erabilera sustatzeko programen berri emango du.
- Enpresei dagokienez, Euskalitek Bikain ziurtagiriaren erradiografia egingo du, eta Danobatek 10 urte bete dituen euskara-planarena. CAFek hizkuntza-politika berria aurkeztuko du, Eroskik adierazle-sistema, eta JEZ Sistemas Ferroviariosek bost hizkuntzatan garatu duten kalitate sistema. Horiakin batera, AEK-k eta Maquelsa/Konica Minoltak azalduko dute nola landu duten fotokopiagailuen softwarea euskaraz; IMHK ezarrita duen IP telefonia bidezko zerbitzu eleanitza, eta LANGUNEk hizkuntza ardatz duten enpresen elkartearen aurkezpena egingo du.
- Ikuspegi teorikoari tarte berezia emango zaio, eta denbora gehiago eskainiko. Batetik, EIZIE itzultzaileen elkarteko ItzulBaitako arduraduna Eleaniztasuna, Enpresa eta Itzulpenaren arteko loturez arituko da, eta Emun aholkularitzako Joxpi Irastortzak motibazioaren gainean garatu duen doktore-tesia aurkeztuko du. Lanbide Heziketari ere lekua egingo zaio, Oarsoaldeko Don Boscoko ikasleekin praktikak euskaraz egiteko aurten garatu den proiektuaren emaitzak emango dira. Amaitzeko, mahai inguru batean parte hartuko dute hizlarietako batzuek.
- Aurrez izena ematea eskatzen da. Aldibereko itzulpen sistema izango da Areto nagusian eta internetez ikusteko aukera. Bi aukera: telefonoz, 943744132, eta www.imh.es webaren bidez.



Ekoizpenaren kudeaketa

- Itziar Gurrutxaga EHUko irakaslea da, eta enpresen hainbat ekoizpen sistema ezagutzeko aukera ematen duen liburua idatzi du euskaraz. Sor daitezkeen arazoak aztertuz, ekoizpena kudeatzearen garrantziaren berri ematen dio irakurleari, eta horretarako dauden ereduak nola jorra daitezkeen erakusten dio. Kapitulu bakoitzaren bukaeran gaiari buruzko ariketak daude.
- Informazio gehiago [hemen](#)



Globalerako ere erabilgarria

- Vicent Partal Vilawebeko kazetari katalanak Gipuzkoa 2.0 ekimenean parte hartu du, eta hizkuntza komunitateak Interneten ikusgarri izatearen garrantzi azzimarratu du. "cat" egitasmoa aipatu zuen. Ametsa ematen bazuen ere, onura handiak ekarri ditu. Google hizkuntza bihurtzearen ondorioz, American Airlines konpainiak zerbitzuak katalanez jartzea eta Appelek ireki berri duen dendako errotuluak katalanez izateak askok haien hizkuntzaz zuten irudi mentala aldatzea ekarri du.
- Informazio gehiago [hemen](#) eta [hemen](#)

BabeliumProject.com

- Euskal Herriko Unibertsitateko GHyM ikerkuntza taldeak garatutako, mintza-praktika egiteko web aplikazio kolaboratiboa da. Erabiltzaileak hainbat hizkuntzatan dauden elkarrizketak dituzten bideoak ditu eskuragarri. Erabiltzaileak bideoko pertsona baten rola hartu eta bikoizketa egin dezake.
- Informazio gehiago [hemen](#)

Caf-Elhuyar 2010

- Zientzia eta teknologiaren arloko gaien eta ikerketen euskarazko dibulgazioa helburua duten sariak martxan dira. Informazio gehiago [hemen](#)



Andoain, Aslagarrega, Hemeni, Lasarte-Oria, Umieta eta Usurbilgo Udalak. Euskarako Batzordeak.

www.buruntzaldea.org